

LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2021eko otsailaren 19n, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA.-

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2021/07 Dekretua

2021/09 Dekretua

2021/10 Dekretua

2021/12 Dekretua

2021/14 Dekretua


2021/15 Dekretua

2021/20 Dekretua

2021/22 Dekretua

2021/27 Dekretua

2021/30 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO
IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUTKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017ko MARTXOAREN 24an
eta GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018ko
ABENDUAREN 5ean SINATU DITUEN LANKIDETZA-
HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA

Idazkaritzak 2021eko urtarrilaren 11an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta Gipuzkoako Ur-Kontsortzioaren artean, elkarlanean, Uraren Ziklo Integrala Kudeatzeko Gomendioko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2021eko urtarrilaren 8an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2021eko urtarrilaren 13ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Gipuzkoako Ur-Kontsortzioaren artean, elkarlanean, Uraren Ziklo Integrala Kudeatzeko Gomendioko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO GOMENDIOKO HITZARMENA

Lizartzan, 2021eko

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

Eta bestetik, Iñaki Azpiroz Beldarrain jauna, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

ESKU HARTZEN DUTE

Olatz Peon Ormazabal andrea, GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREN izenean, joan den 1998ko otsailaren 20ko GAOean argitaratu ziren erakundearen Estatutuek diotenaren arabera duen ordezkaritza erabiliz.

Iñaki Azpiroz Beldarrain Jn, Lizartzako Udal Gorenaren izenean, Alkate-Lehendakaria izanik eta joan den 2021eko urtarrilaren 18an egin zen Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera egintza honetarako baimendua izan denak. Aipatutako erabakiaren ziurtagiria Udaleko Idazkariak izenpetuta gomendio honi eransten zaio.

XEHETASUNAK

Lehenengo.- Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek horien artean LIZARTZA eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: *“sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, guzti hori baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.”* Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak, LIZARTZAKO udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

Bigarren.- LIZARTZAKO udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea.

Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak, Udalek, horrela nahi dutenean, Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortzian eman dezaketela ezartzen du.

Bestalde, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde inpropioa den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera Toki Jaurbidearen gaitan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5 art.- eta estatutuetako xedapenen arabera 9. art.. Zentzu horretan eta bere zerbitzuak kudeatzeko GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratua: GIPUZKOAKO URAK E.A.

Beraz, beharrezko lege eta jardutze-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta GOMENDIO hau izenpetzea erabaki dute ondorengo atalen arabera.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

ATALAK

Lehenengoa.- LIZARTZAKo udalak, gomendio honen ondorioz eta Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. Horretarako, LIZARTZAKo Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsorzioatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea erabakitzen du.

Bigarrena.- LIZARTZAKo Udalak, zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, berak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du. Ur zerbitzuko abonatuak neurgailuak ez badituzte, beren kontura jarri beharko dituzte, nahiz eta Kontsorzioak horiek jartzea erraztu dezakeen, beti ere abonatuaren kontura.

Hirugarrena.- Lizartzako Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabakitzen du, hitzarmen honi erantsitakoa.

Laugarrena.- gipuzkoako ur kontsorzioak lizartzaKO UDALERRIKO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa 2021eko apirilaren 1etik aurrera bere gain hartuko du.

Bosgarrena.- Gomendio honek gutxienez 10 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakin araziz.

Behin hasierako 10 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berarizko uko egitea ematen ez bada, gomendioa luzatuta ulertuko da Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsorzioatutako erabakiak ematea deusezte erabakiko balu, deuseztepena baino lehen, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio, zenbatekoa kalkulatu da hartuaz Kontsorzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta LIZARTZAKo Udalarri emandako kopuruak ken Kontsorzioak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

pilatutako kopuruak LIZARTZAn inbertsioak eta berrikuntzak egiteko uraren fakturan kobratutakoaren bidez. Kontrakoa gertatuko balitz, aipatutako kopurua GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK LIZARTZako Udalari ordaindu beharko dio.

Seigarrena.- Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udaleko abonatuentzako baliozko ordenantzak ere, hasiera batean, Kontsortzioa osatzen duten udal bakoitzak onartu beharko ditu. Hala ere gomendio honen bidez GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN Batzar Nagusiaren esku utzi daiteke, aipatutako tasen urteko gaurkotze ahalmena, tarifen egitura aldatu gabe.

Zazpigarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK LIZARTZako Udalari bermatzen dio, gomendio honen bitartez bere gain hartutako kudeaketagatik abonatuak eta bezeroei doakien edozein informazioari buruzko konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna bere langileen gordeko dutela, eta batez ere, Norberaren Datuak Babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak babestukoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zen gomendio honek irauten duen bitartean zein hitzarmena bukatutakoan.

Zortzigarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK urtebeteko epean Irurzubi industrialdeko saneamendua konponduko du, baldin eta Ur Agentziak ez du Lizartzako araztegirako edo Tolosako kolektorearako konexioa exijitzen.

Bederatzigarrena.- Gomendioak izaera administratiboa du eta haren sorrera, ulerkuntza, aldaketa edo suntsiarazpenaren inguruan sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.

Eta guztiarekin bat datozela agertzeko, Gomendio hau izenpetu egiten dute, bi aletan eta ondorio batetarako esandako egunean eta tokian.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

LAUGARRENA.- LIZARTZAN ARGITERIA PUBLIKOAREN LUMINARIAK
HORNITZEA ETA MONTATZEA. ESLEIPENA

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan agindu denaren arabera –Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL–, gure Alkatetzak uste du nahitaezkoa dela honako zerbitzu-kontratua bideratzea: “*Lizartzan, Argiteria Publikoaren Luminariak Hornitzea eta Montatzea*” hornidura.

Udaleko zerbitzu teknikoek txostena igorri zuten, eta beraren alde teknikoak zehaztu zituzten, baita jarduna bideragarria zen adierazi ere. Halaber, lizitazioa arautuko duten preskripzio teknikoen agiriak idatzi dira.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 298. artikuluan eta hurrengoetan zer xedatu den ere izan behar da gogoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL.

Kreditu-atxikipena egin da 1.0000.623.165.00.02.2021 aurrekontu-aplikazioan 64.432,48 euro zordunduz; alegia, bideratzekoa den kontratuaren balio zenbatetsia.

Udaleko Idazkaritzak txosten juridikoa igorri zuen.

Administrazio-klausula berezien agiriak onetsi dira, hizpide dugun kontratua arautuko dutenak.

Udaleko Kontu Hartzaitzak ikuskaritza egin du.

Alkatetzak emandako ebazpenaren bidez, hizpide dugun kontratuaren kontratazio-espeditatea onetsi zen, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116. artikuluan eta hurrengoetan agindu denarekin bat etorri –Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea da hori, 2017ko SPKL–. Horretarako, prozedura irekirako deialdia egin zen, aurreko arau horren 156. artikuluan jaso denari jarraituta.

Kontratazio-mahaiak egin zuen proposamenaren arabera, 3 eskaintza aurkeztu ziren, eta puntuazio hauek lortu zituzten:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

PARTE HARTZAILEAK	A) Balio-judizioen bidez balora daitezkeen irizpideak (50 puntura arte)	PROPOSAMEN EKONOMIKOA 40 puntu	BERME EPEA LUZATZEA 5 puntu	EPEA MURRIZTEA 5 puntu	GUZTIRA 100 puntu
IBARRA ARGI LANAK S.L.	50,00	40	3	3,35	96,35
LEYCOLAN S.A.L.	50,00	26	3	5	84
JON SORALUCE AYERDI	44,50	13,20	3	5	65,70

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarri denari jarraituta –Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea da hori, 2017ko SPKL–, Alkatetza da kontratatzeneko organo eskuduna.

Kontuan hartzekoa da, batetik, sektore publikoaren kontratazioari buruzko arauetan jaso diren aginduak bete direla, eta, bestetik, ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik onuragarriena **IBARRA ARGI LANAK S.L.** aurkeztu duela. Gainera, berak ere aginduzko agiriak aurkeztu ditu azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 140. eta 141. artikuluetan ezartzen denari jarraituta, arau bereko 150. artikuluekin bat etorritik – Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL–.

Kontuan hartzekoa da azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 151. eta 153. artikuluetan zer ezartzen den –Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL–.

Horiek guztiak horrela izanik,

ERABAKI DA:

LEHENENGOA. **IBARRA ARGI LANAK S.L.**ri adjudikatzea “*Lizartzan, Argiteria Publikoaren Luminariak Hornitzea eta Montatzea*” horniduraren kontratu administratiboa, 53.249,98 eurotan, BEZik gabe, eta 11.182,50 € Bez-ari dagozkionak, guztira: 64.432,48 €. Berme Epea, 5 urte izango da eta Kontratuaren iraunaldia 60 egunekoa da.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

BIGARRENA. IBARRA ARGI LANAK S.L. sozietateari eskatzea kontratua gauzatu dezala, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153. artikuluan ezarri denari jarraituta Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL- lizitatzaillei eta hautagaiei egin zaien adjudikazio-jakinazpena jaso eta, beranduenik, hurrengo hamabost egun baliodunetan.

HIRUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea administrazio-espeditentean interesa dutenei, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 155. artikuluan ezarri denari jarraituta – Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL–.

LAUGARRENA. Kontratazio hau gauzatu dela iragartzea kontratatzailearen profilean, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL–.

BOSGARRENA. Kontratuaren arduradun izendatzea lanen zuzendaritza fakultatiboa, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik –Sektore Publikoko Kontratuen Legea da hori, 2017ko SPKL–.

BOSGARRENA.- 2020 URTEKO LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRAREN ONARPENA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2020ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

1.- Lizartzako Udaleko 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2020-12-31n		429.637,31
Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n		30.707,27
Aurrekontuko zordunak	27.797,89	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	2.909,38	
- Aplikatu gabeko kobrantzak	0,00	



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n		- 29.369,57
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	15.113,09	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	14.256,48	
- Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Diruzaintzako gerakina guztira		430.975,01
Saldo kobragaitzak	-----	
Gehiegizko finantzaketa lotua:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		430.975,01

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	- 9.313,98
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	- 0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	94.409,74
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	85.095,76

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	133.705,42
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	133.705,42

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2020 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2020 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedienteen agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

SEIGARRENA.- 2021/01 KREDITU ALDAKETA

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikuluko ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
227.151.00.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	5.868,50	8.868,50
	Udal Eraikinetako Auditori Energetikoa		4.053,50	
	Argiteri Publikoa. Balorazio Teknikoa		1.815,00	
601.454.10.01	Argiteria Publikoaren Luminariak Hornitzea eta Montatzea	0,00	64.432,48	64.432,48
601.425.00.01	Osasun Zentruan Fotovoltaikoa. (2. Fasea)	0,00	4.460,35	4.460,35
GUZTIRA		3.000,00	74.761,33	77.761,33

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	74.761,33	74.761,33
GUZTIRA		-----	74.761,33	74.761,33

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

ZAZPIGARRENA.- MOZIOAK

MARTXOAREN 8 – EMAKUMEEN EGUNeko ADIERAZPENA

ZAINZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean

Dimentsio askoko krisi sistematikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxean barruan, eta



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazueden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurritz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandeamiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanaz gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

* Gizartean zaintza antolatzeko ereduari buruzko eztabaida bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- * Analisia egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaugarrienen egoerari eta beharriaz buruz, baita COV-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premia neurriak martxan jartzea.
- * COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, laguntzez eta babes-programez den bezainbatean.
- * Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.
- * Udalen Berdintasun-olangintzetan, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonen duten erantzunkidetasuna.
- * Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar lerroa izateko erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak sendotzea eta babestea.
- * Tokiko zaintza-sare komunitarioei babesa ematea.

2021eko martxoaren 8a dela eta adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ZORTZIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia